# Garaizarko Matsorriak Italian

**Garaizarko Matsorriak Begoñako abesbatzak Italiara bidaia egin du ekainean eta kontzertu bi eskaini ditu bertan. Horrez gain, koruaren 25. urteurreneko kontzertu berezia DVD batean jaso eta plazaratu egin dute bilbotarrek.**

Ekainaren 7tik 9ra bitartean Milan, Florentzia eta Siena bisitatu dituzte Bilboko kantariek eta Cantate Toscana Jaialdian parte hartu dute. Begoñarrek Erandio Goikoko "Goialde" dantza taldeko Irati eta Asier dantzarien eta Leioako txistulari talde baten laguntza izan dute beren emanaldietan.

Basilica della Madonna dell'Umiltà de Pistoian egin zuten lehen kontzertua, Su insieme izeneko abesbatza batekin batera. Greve in Chiantin egiten den XII Rassegna Internazionale di canto corale jaialdian kantatu zuten bigarrenik. Austriako Weisskirchner Feinklang eta Italiako Coro Polifonico del Chianti koruak ere aritu ziren bertan.

Euskal folklorearen aniztasuna eta aberastasuna goraipatu zituzten kontzertu bietako entzuleek. Begoñako koruak Raimundo Sarriegi, Segundo Matute, Jesus Guridi, Pablo Sorozabal, Pedro Retana eta Victor Zubizarretaren kantuak abestu zituen, besteak beste.

Greve in Chiantiko kontzertuan egindako bisetan, Garaizarko Matsorriak koruaren zuzendariak, Miren Zubietak, elkarrekin kantatzera animatu zituen jaialdian parte hartu zuten beste bi koruak eta baita entzuleak ere. Verdiren Nabucco operaren *"Va Pensiero"* kantatu zuten guztiek elkarrekin, Jose Antonio Kaltzada "Surti"k pianoarekin laguntzen zituela. Bidaiako unerik hunkigarrienetakoa izan zen.

## Urteurrena ospatzeko kontzertua DVDan jasota

25. urteurrena ospatzeko kontzertu berezia egin zuen Garaizarko Matsorriak koruak maiatzaren 18an Juan Crisostomo de Arriaga kontserbatorioko entzun aretoan. Kontzertua jasota, DVDa plazaratu berri du Begoñako taldeak. Santutxuko "Gaztedi" dantza taldearen eta Leioako Kontserbatorioko txistulari taldearen laguntza izan zuten bilbotarrek kontzertuan.

Opera aria ezagunak, Haendelen Mesiasen *Hallelujah* famatua, hainbat bilbainada eta euskal folklorearen parte diren zenbait kantu biltzen dira DVDan.

DVDa 8 euroan eros daiteke honako telefono honetara deituta: 636 961 150.

**Info +**
www.corogaraizarkomatsorriak.com



*"Va Pensiero"* de la ópera Nabucco de Verdi, acompañados al piano por José Antonio Kaltzada "Surti".

# Garaizarko Matsorriak en Italia

**El coro begoñes Garaizarko Matsorriak realizó un pequeño viaje a Italia el pasado mes de junio, donde ofrecieron dos conciertos. Además, han editado un DVD en el que se recoge el principal concierto de su 25 aniversario.**

Del 7 al 19 de junio los coralistas de Bilbao visitaron las ciudades de Milán, Florencia y Siena, y participaron en dos conciertos corales dentro del Festival Cantate Toscana. Han contado en sus actuaciones con la colaboración de los dantzaris Irati y Asier del grupo "Goialde" de Erandio Goikoa y un grupo de txistularis de Leioa.

Ofrecieron un concierto en la Basilica della Madonna dell´Umiltà de Pistoia, junto con el coro local "Su insieme". También cantaron en la XII Rassegna Internazionale di canto corale que se viene celebrando en Greve in Chianti; en esa ocasión participaron también el coro austriaco "Weisskirchner Feinklang" y el italiano "Coro Polifonico del Chianti".

En ambos conciertos, los asistentes alabaron la variedad y riqueza del folklore vasco, entre otras, obras de Raimundo Sarriegi, Segundo Matute, Jesús Guridi, Pablo Sorozabal, Pedro Retana y Victor Zubizarreta.

Quizás el punto álgido se produjo en el concierto de Greve in Chianti, cuando en uno de sus bises la directora de Garaizarko Matsorriak, Miren Zubieta, invitó al resto de coros participantes y al público asistente a interpretar conjuntamente

## Concierto del aniversario en DVD

El coro ha editado un DVD que recoge el concierto especial que ofreció el pasado 18 de mayo en el auditorio del Conservatorio Juan Crisóstomo de Arriaga, con motivo de su 25 aniversario. Estuvieron acompañados por el grupo de danzas "Gaztedi" de Santutxu, la Orquesta Sinfónica de Begoña y los Txistularis del Conservatorio de Leioa.

El DVD recoge varias conocidas arias de ópera, el *Hallelujah* del Mesias de Haendel, varias bilbainadas y una selección de canciones del folklore vasco.

Este DVD puede adquirirse al precio de 8 €, llamando al siguiente teléfono: 636 961 150.

**Info +**
www.federagaf.net



# Esperientzia positiboa Europa Cantat Jaialdian

**Bi euskal koruk Europa Cantat Jaialdian parte hartu dute udan eta esperientzia ezin positiboagoa izan da bientzat. Munduko txoko guztietatik etorritako 5.000 musikari eta abeslari inguruk parte hartu dute Turinen egin diren ikastaroetan. Horien artean Arrasateko Goikobalu Gazte abesbatzako gaztetxoak eta Mungiako Tantak Koralekoak. Basilio Astulez zuzendariak ere hainbat ikastaro eskaini ditu jaialdian. Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak ere bertatik bertara ikusi du jaialdia.**

Elkarteak Turinen egoteko gonbidapena jaso zuen Jaialdia antolatzen duen erakundearen eskutik eta bertan izan ziren EAEko presidentea, Amaia Garmendia, eta idazkari nagusia, Paula Garcia. Europa Cantat jaialdiaren testiunguruan antolatzen diren ikastaroak zuzenean ezagutzeko aukera izan zuten presidenteak eta idazkariak.

Abesbatzen Elkartearen arabera, "ezin genion uke egin era horretako gonbidapen bati, nazio zein nazioarte mailan esanguratsuenak diren koru erakundeek bakarrik baitute pribilejio hori. Esperientzia oso positiboa izan da eta erabat gomendagarria. 40 herrialdetako 4.000 lagun era ordenatu eta koordinatu batean ibili dira Jaialdiko agertokietan, antolaketa bikainari eta 300dik gora boluntariok egin duten lan nekaezinari esker".

Hiru urterik behin antolatzen da Europa Cantat Jaialdia Europako hiriburu ezberdin batean. Partehartzaileek musika estilo ezberdinak lantzeko aukera izaten dute, lehen mailako zuzendarien begiradapean. Aurten, Basilio Astulez euskalduna izan da Turinen izan diren zuzendari-irakasleetako bat. Astulezek bi ikastaro eman ditu, eta bi izan dira baita ere jaialdi erraldoi honen XVIII. edizioan parte hartu duten euskal koruak.



# Experiencia positiva en Europa Cantat

**Dos corales vascas han regresado con muy buen sabor de boca, tras participar este verano en Turín en el Festival Europa Cantat. Han participado en los talleres cerca de 5.000 músicos y cantantes procedentes de diversos países, entre los que se encontraban las y los jóvenes cantantes de Goikobalu Gazte de Arrasate y de Tantak Korala de Mungia. El director Basilio Astulez también ha participado en el festival. Y la Confederación de Coros del País Vasco ha podido recoger información de primera mano.**

La presidenta y la secretaria general de EAE, Amaia Garmendia y Paula García pudieron presenciar in situ el desarrollo de los talleres organizados dentro del Festival Europa Cantat. La Confederación había sido invitada por la Organización del festival.

Desde la Confederación nos comentan que "no podíamos rechazar una invitación de estas características, puesto que sólo las instituciones corales más representativas, tanto a nivel nacional como internacional gozan de este privilegio. La experiencia ha sido muy positiva y a todas luces recomendable. 4.000 personas procedentes de 40 países se movían de forma ordenada y coordinada por los distintos escenarios del Festival, gracias a una excelente organización y al trabajo de más de 300 voluntarios que trabajaron de forma incansable". El festival Europa Cantat se celebra cada tres años en una ciudad diferente de Europa. Los participantes en el certamen tienen la oportunidad de trabajar muy diferentes estilos musicales de la mano de directores de primer nivel. Este año, uno de los directores/profesores ha sido el vasco Basilio Astulez, que ha impartido dos talleres. Dos corales vascas han participado en los talleres organizados en la XVIIIª edición de este macrofestival.